

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETA HOBETZEKO ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO PROTOKOLOA

Hitzarmena

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek, honako konpromisoak hartzen dituzte indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko koordinazio protokoloarekin bat eginez:

Lehena: Oñatin Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko koordinazio protokoloa onartzea

Bigarrena: Esparru honetan lan egiten duten erakundeekin batera koordinatzeko ahaleginak elkartzea. Ahalegin horiek zehazteko, Koordinazio-mahai iraunkor bat sortuko da.

Hirugarrena: Sinatzen duten erakunde guztietako langileak ezarritako koordinazio-mekanismoetan eta jarduera-prozeduretan inplikatzeko; horretarako, guztiek ere konpromisoa hartzen dute lortutako eta protokolo honetan sinatutako adostasun guztiak euren langileen artean zabaltzeko.

Laugarrena: Erakunde bakoitzean erreferentziazko pertsona bat izendatzea, protokolo honetan adostutako koordinazio-egiteko guztiei segimendua egiteko, baita ordezkari pertsona bat aukeratzea ere, titularra falta denetan haren ardurak hartzeko.

Bosgarrena: Hitzarmena sinatu duten erakundeen jarduera gidatzea, protokoloaren honako atal honetan dauden jarduera-irizpideekin bat: "Asistentzia gidatzeko irizpideak eta emakume biktimekin esku-hartzea".

Seigarrena: Indarkeria matxista prebenitzeko hedatze-kanpainak eta -ekintzak sustatzea, gizarteak indarkeria horren adierazpide zuzenei uko egiteko, baina baita haren forma sinboliko eta estrukturaleri ere.

Zazpigarrena: Protokolo honetan ezarritako koordinazio-mekanismoetara beste gizarte-eragile batzuk erakartzea eta haien partaidetza sustatzea, bai indarkeria-matxista prebenitzen dihardutenak, bai indarkeria horren beste agerbide batzuetan jarduten dutenak, nahiz eta biktimak artatzeko prozesuetan tradizionalki inplikaturik dauden ardatzetara iritsi ez (hala nola mugimendu feminista, gazteekin lan egiten duten erakundeak edota indarkeria-egoera publiko egiteko zailtasun handiagoak dituzten emakumeen beste sektore batzuekin aritzen direnak).

Zortzigarrena: Emakumeak indarkeriatik irteteko bideak ezagutarazteko eta hobeto aztertzekeo datuak biltzeko erremintak sortzea, baita prozesu horretan topatzen dituzten zailtasunak jasotzeko ere.

Bederatzigarrena: Protokoloaren funtzionamenduari buruzko ebaluazio jarraitua egiteko prozesu bat garatzea, arretak hobeto funtzionatzeko beharrezko hobekuntzak aise txertatzeko aukera emango duena. Aurrekoaz gain, protokoloa sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute protokoloaren beraren zein arreta-politiken ebaluazioa egiteko, abiarazi eta hiru urteren buruan. Esandako ebaluazio horretan, zerbitzuetako erabiltzaileen partaidetza bermatuko da, arretan izandako hobekuntzen eraginkortasuna neurtzeko xedez.

Hamargarrena: Protokolo honen ezagutza sustatzea herritarren artean, biktimek jakin dezaten zer babes-prozedura eta -zerbitzu dituzten eskura, eta herritarrak ere indarkeria matxistaren aurka egiteko eta babeserako sare sozial bilaka daitezzen.